

**LEHIAKORTASUNARI BURUZKO BILTZARRA-ORKESTRA
CONFERENCIA COMPETITIVIDAD-ORKESTRA**

2017-06-28 -Universidad de Deusto- 28-06-2017

Lehendakariaren hitzaldia –Discurso del Lehendakari

Herri agintariok, alkate jauna, lehendakari ohia, Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentea eta zuekin batera diren: herri agintari herri ordezkariok, Unibertsitatearen eta Orkestraren ordezkariok, jaun andreok, arratsalde on.

Lehiakortasunaren erronka Herrialde guztiaren erronka da; Orkestrak, bere lehen 10 urte hauetan, ondo baino hobeto erakutsi duen moduan. Horregatik aurkezten duzuen “Lehiakortasunari buruzko Txostena” erreferente bat da guretzako, gizarte eta ekonomia garapenaren aldaketa eragiteko lan tresna.

Zuen ekarpena eskertzen dugu: berrikuntzari eta nazioartekotzeari lotutako enpresa estrategiak azertu dituzue; kluster politikaren bilakaera; energiaren garrantzia; garapen estrategia eta, baita ere, berrikuntzaren euskal sistema.

Argi dugu Berrikuntza enpresaren kulturaren txertatu behar dela, horrela lortuko dugu etorkizun ekonomiko berriaren erronkak gainditzea.

El “Informe de Competitividad” de Orkestra es una referencia para el Gobierno Vasco, valoramos el análisis de la evolución de la situación competitiva estos 10 años y la mirada al futuro que proyectáis.

Hemos demostrado capacidad para comenzar a superar la crisis y mirar a un nuevo futuro económico. Lo hacemos sobre una base sólida, el modelo de Desarrollo Humano Sostenible que defendemos:

- La cohesión social es un elemento de competitividad de nuestro País. Las sociedades más equilibradas son, también, las más competitivas.
- La formación, modernización de las infraestructuras, especialización inteligente, internacionalización o innovación son inversiones básicas para fortalecer un ecosistema de economía avanzada.

La labor de Orkestra es muy relevante y contribuye a socializar la cultura de la competitividad en nuestro País.

Giza Garapen Iraunkorraren eredua indartzea eta Euskadin enplegua sortu eta enplegu hori kalitate handiagokoa izatea da gure erronka. Horixe da gizarte solidario eta aurreratu baten etengabeko erronka.

Gaur egun oparoa izan da bide honetan. Alde batetik Orkestraren Txostena aurkeztu duzue; bestetik (eta hemen daude, bai Euskal Herriko Unibertsitateko errektore andrea, Mondragoiko Unibertsitateko errektore jauna, Deustuko Unibertsitateko errektore jauna, baita Innobasqueren presidentea bera ere), gaur izan egin dugu Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua eta bertan ere azpimarragarriak dira, bertan aipatutakoak.

Berrikuntza da gure etorkizunaren giltza. Euskadi berrikuntza-gune bat dela aitortu du Europar Batasunak. Helburu horrekin, gure herrialdeak 11.000 milioi euroko inbertsio publiko-pribatua konprometitu du.

Ahalegin gehigarri bat behar da. Honetarako, elkarrekin lan egin behar dugu enpresek, unibertsitateek, eragile zientifiko-teknologikoek eta Administrazio Publikoak ere.

Erabateko konpromisoa daukagu ikerketa, garapen eta berrikuntzarekin. Gobernuak urtero % 5 gehituko du programa horietarako duen aurrekontua. Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi honetan 1.770 milioi inbertituko ditu espezializazio adimentsuaren estrategiaren alde.

Kontseiluaren edo Orkestraren lana oso garrantzitsua da. Enpresak, batez ere txikiak eta ertainak, animatu behar ditugu berrikuntzan inbertsio gehiago egitera. Hori da gure lehiakortasunaren oinarria.

Nuestro reto es reforzar el modelo de Desarrollo Humano Sostenible, creando más empleo y de mayor calidad. Es el reto de una sociedad solidaria y avanzada; el bien común que nos corresponde construir trabajando juntos. En este camino la labor de Orkestra, socializando la cultura de la competitividad, está siendo fundamental.

Hoy, además, hemos reunido el Consejo vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación, que supone que Euskadi refuerza su apuesta estratégica por la Innovación. La innovación es la razón de nuestro presente y la llave de nuestro futuro. Desde 2014 desarrollamos la Estrategia de especialización inteligente RIS 3 y la Unión Europea ha vuelto a reconocer el papel de Euskadi como polo de innovación. Se mantiene nuestra posición como Comunidad de alta innovación en un entorno estatal de media o baja innovación.

Haber llegado hasta aquí es reflejo de un esfuerzo compartido, pero los éxitos del pasado no garantizan el futuro. Nuestro País ha comprometido una inversión público-privada de 11.100 millones de euros hasta el año 2020. Aspiramos a ser referente europeo de innovación.

Tenemos que hacer un esfuerzo adicional. Esto nos exige trabajar juntos: empresas, universidades, agentes científico-tecnológicos y Administración pública.

Nuestro compromiso con la I+D+i es pleno. Vamos a incrementar un 5% anual el presupuesto del Gobierno Vasco para estos programas. Vamos a invertir 1.770 millones de euros esta legislatura en favor de la estrategia de especialización inteligente.

La labor del Consejo o de Orkestra es muy relevante. Nos corresponde animar a las empresas, especialmente a las pequeñas y medianas; animar a las personas a incrementar su inversión en innovación.

La innovación es competitividad, tanto en nuevos productos y procesos, como en el ámbito comercial y de organización. Hablábamos esta mañana también de innovación tecnológica e innovación no tecnológica. Tenemos que hacer las cosas mejor y más rápido que los demás. El empleo de hoy y mañana depende de nuestro acierto en esta apuesta. El empleo de calidad se fundamenta en la innovación y ésta es la base de nuestra competitividad.

Hurrengo hamarkadari begira, gure eskualdeak aurrean dituen erronkak sakontasunez aztertzea dagokigu. Bide luzea dugu eta, hamar urte hauetan, Orkestra izango dugu beti bide lagun. Jarraitu dezagun elkarrekin lehiakortasunaren bidean, auzolanean.

Zorionak Orkestra egindako lanagatik eta guztioi eskerrik asko!